

GIZARTE LANGINTZAKO GRADU AMAIERAKO SARIAREN I. DEIALDIA LEHIAKETAREN OINARRIAK

ANTOLATZAILEAK:



GIPUZKOAKO GIZARTE
LANGINTZAREN ELKARGO OFIZIALA
COLEGIO OFICIAL DE TRABAJO
SOCIAL DE GIPUZKOA



Arabako Gizarte Langintzaren Elkargo Ofiziala
Colegio Oficial de Trabajo Social de Alava



BIZKAIKO GIZARTE LANGINTZAREN ELKARGO OFIZIALA
COLEGIO OFICIAL DE TRABAJO SOCIAL DE BIZKAIA

LAGUNTZAILEA:



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

LAN HARREMAN
ETA GIZARTE LANGINTZA
FAKULTATEA
FACULTAD
DE RELACIONES LABORALES
Y TRABAJO SOCIAL

GIZARTE LANGINTZAKO GRADU AMAIERAKO

SARIAREN I. DEIALDIA

SARRERA

Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako Gizarte Langintzako Elkargo Ofizialek, UPV/EHUko Lan Harreman eta Gizarte Langintzako Fakultatearekin lankidetzan, "Gradu Amaierako Lana" sariaren I. deialdia antolatzen dute. Sari hau Euskal Herriko Unibertsitateko Gizarte Langintzako Graduako ikasleen arteko ikerketa aitortu eta sustatzeko, eta arlo akademikoa eta profesionala bat egiteko guneak sustatzeko, sortzen da, baita diziplinaren lanketa teorikoa areagotzeko.

GRADU AMAIERAKO LANAREN SARIAREN OINARRIAK

1. HELBURUAK

Gradu Amaierako Lanaren Sariaren helburua graduarekin eta haren proiektzio profesionalarekin uztardura duten proiektu eta ikerketei aztertzea eta ikusgarritasuna ematea da, UPV/EHUko Gizarte Langintzako Graduako ikasleen ikerketa jarduera sustatuz, eta beren ikerketetan lortutako emaitzak ezagutaraziz.

- Ikasleek garatutako gizarte langintzako proiektuei eta ikerketei nabarmentasuna eta ikusgarritasuna ematea.
- Gizarte Langintza aztergai duten kalitatezko ikerketen garapena sustatzea.
- Gizarte Langintzako eredu teorikoei, metodologiei eta beharrei erantzun eraginkorra emango dieten edota gizarte ongizatea eraikitzen lagunduko duten eskuartze metodoen ezagutza garatzea.

2. PARTE HARTZAILEEN BETEKIZUNAK

Sari honetan 2024/2025 ikasturtean Gradu Amaierako Lana defendatu duten UPV/EHUko Gizarte Langintzako Graduako ikasleek parte hartu ahal izango dute. Betiere Gizarte Langintzaren arloko jarduera profesionalarekin lotutako ekarpen garrantzitsuak eta berritzaileak egin badituzte eta 8.0 edo gehiagoko nota lortu badute.

Aurkeztu beharreko lanak UPV/EHUko Lan Harreman eta Gizarte Langintza Fakultatean aurkeztu eta defendatutako GrAL berdina izan beharko du.

3. PARTE HARTZEKO BALDINTZAK ETA ETA EPEAK

Aurkeztutako lanak 2024ko irailaren 29tik urriaren 12ra bidali behar dira dagokion moduan coordinacionbizkaia@cgtrabajosocial.es Elkargo Ofizialaren helbide elektronikora, ondoren zehazten diren baldintzak betez:

- Jatorrizkoaren kopia bat, PDF Formatuan, datu guztiak beteta.
Dokumentuaren izena: Originala osorik + GrALaren izenburua
- Kopia bat, **word formatuan edo formatu bateragarrian** (ez da egilearen identifikazio daturik agertuko, eta lelo edo izengoiti bat duen izenburu bakarra jasoko da). Testuan ez da aipatu behar egilea, zuzendaria edo tutorea identifika dezakeen edozein erreferentzia, ezta identifikazio datuak dituen edozein irudi edo logotipo ere.

Dokumentuaren izena: Ezident + GrALaren izenburua

- Dokumentu bat, Word formatuan, ikaslearen eta tutorearen identifikazio datuekin, etorkizuneko komunikazioetarako (artikuluaren izena, ikaslearen izena, ikaslearen helbide elektronikoa eta harremanetarako telefonoa, tutorearen izena eta posta elektronikoa eta tutorearen harremanetarako telefonoa).

** GLEOek, saria jasotzeko hautagaien zerrenda EHUko Lan Harreman eta Gizarte Langintza Fakultateako idazkaritzara bidaliko dute, Fakultateak lanaren defentsaren data eta lortutako kalifikazioa egiazta ditzan (8 edo altuagoa izan beharko da).

4. GRADU AMAIERAKO LANEN IKERKETA ILDOAK

Sarira aurkezten diren GRALeak Gizarte Langintzaren garapenarekin zerikusi zuzena duen gairen bat izan beharko dute, lanbide eta diziplina gisa. Honako hauek dira lehentasunezko zat jotzen diren ikerketa ildoak:

- Gizarte Langintzaren rol profesionala garatzea eta defendatzea.
- Etika eta deontologia profesionala esku-hartze eremu ezberdinetan eta Elkargoek egiten duten sustapena.
- Elkargoen parte-hartzea ikuspegi feministatik, kontutan hartuta lanbide feminizatua dela eta generoak parte-hartze horrekin harremana izan dezakeela.
- Gizarte langilearen figura Gizarte Langintzako Elkargo Ofizialen profesional gisa.

- Elkargo Profesionalen eta Unibertsitatearen arteko lankidetzaren garrantzia, lanbide-indartzeari begira.
- Garatzen ari diren alorrak, esparruak eta sektoreak, tradizionalak ez direnak edo gutxi ikusten diren Gizarte Langintzaren arloak.
- Lanbidearen jardun askea, enplegu sorgune berriak, ekintzailetza eta gizarte ekonomia.
- Giza eta gizarte eskubideak, osasun eskubideak, etxebizitza eskubideak eta gizarte langintzarekin lotutako beste eskubide batzuk defendatzea.
- Gizarte Langintzako esperientzia praktikoak eta ekimenak, eta praktikaren sistematizazioa.
- Gizarte Langintzako profesionalak zaintzea eta Gizarte Langintza gainbegiratzea.
- Talde lana eta komunitate lana sustatzen duten metodologia eta praktika berritzaileak.
- Estaldurarik gabeko gizarte premiak detektatzea eta Gizarte Langintzatik arreta proposamenak egitea.
- Ebaluazioa eta kalitatezko esku-hartzea Gizarte Langintzan.
- Parte hartzearen garapena Gizarte Langintzatik.
- Lanbidearen edota diziplinaren historia, Gizarte Zerbitzuen sistema eta erreferente esanguratsuen aldarrikapena eraikitzea.
- Gizarte Langintza eta jasangarritasunaren erronka: Erantzukizun Sozial Korporatiboa, kontsumo arduratsua, 2030 Agenda, Ingurumena, baliabideen optimizazioa, berrikuntza eta kalitatea, dauden zerbitzu eta prestazioen hobekuntzak, etab.
- Gizarte Langintza Feminista; Genero ikuspegia txertatzea eskuartze sozialean.
- Gizarte Langintza eta teknologia berriak.
- Gizarte Langintza nazioartean.

5. BALORAZIOA ETA EPAIMAHAIA

Epaimahaia 3 pertsonak osatuko dute: Elkargo Profesionalek izendatuko dituzte bi pertsona, eta bat Lan Harremanen eta Gizarte Langintzako Fakultateak.

6. SARIA

Sari bat emango da. Sari hori urtebeteko doako elkargokide izatea izango da, pertsonak nahi duen elkargo ofizialean. Gainera, irabazleak aukera izango du Fakultateak eta Elkargoek urtero antolatzen duten Ikerketa Mintegian Gradu Amaierako Lana aurkezteko.

GRAL sarituaren egileari lan onenaren egiaztagiria emango zaio.

7. ERABAKIA

Epaimahaiak oinarri horien arabera jardungo du, eta epaimahaiaren erabakia apelaezina izango da.

Saria eman (graduazio-ekitaldia) baino astebete lehenago, epaimahaiak saritutako GrALa aukeratu eta jakinarazi beharko dio egileari.

8. SARIEN BANAKETA

Erabakia ematen denean, irabazleari jakinaraziko zaio epaimahaiaren erabakia, urtero antolatzen duen Graduazio-ekitaldian saria emateko prozesuan parte hartuko duela ziurtatzeko.

9. ARAU OSAGARRIAK

- Sarian parte hartzeak Oinarri hauek erabat onartzea dakar.
- Lan irabazlea Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako Gizarte Langintzako Elkargo Ofizialen webgunean erakutsiko da.
- GrALean Gizarte Langintzako Elkargo Ofizialek lanbidea sustatzeko eta defendatzeko egiten duten lana aipatzea baloratuko da.

***Datuen babesa:** Interesdunak, dokumentu hau sinatuz, baimena ematen du Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako Gizarte Langintzako Elkargo Ofizialek beren borondatez emandako datu pertsonalak tratamenduaren arduradun gisa erabil ditzaten, Gizarte Langintzako GrAL sariaren I. deialdian parte hartzeko eskaera izapidetzeko eta deialdiari dagozkion kudeaketa guztiak egiteko. Datu horiek behar den denboran gordeko dira, lortu nahi den helburua betetzeko, lege ezarritako kontserbazio epeei kalterik egin gabe. Finalista edota irabazlea izanez gero, berariaz baimentzen da EAEko hiru elkargoen webgunean, sare sozialetan eta ohiko komunikabideetan argitaratzea interesdunaren oinarritzko datu pertsonalak, baita irudia ere, informazioa zabaltzeko. Interesdunarengandik jasotako datuak ez zaizkie kanpokoei lagako.

